

{ koaderno } **Itzea Urkizu Arsuaga**

Mundu bat zuri

Bizitza astetan kontatzera igaro naizenetik, errepaso kronologiko absurdoak egi-teari ere ekin diot. Pentsa, hortaz, ha-markada berriaren hasierak –edo, hurrengo urtean hasiko da?– ekarri di-dan oroitzapen zaparrada. Memoriak erreferentziatzat hartu izan dit, beti, 2000. urtera sartu gineneko Urtezahar gaua; ondo gogoan dut amonaren beldur txikia, milurteko berrian sartzeare-kin batera gureak egingo zuela telebistan entzun zue-lako. Lekutan geratu da “2000 Efektua”.

Aski akaso ez, baina asko eta azkar gertatu da geroztik, eta hasi berri dugun urteak bere izena zenbakitan idaztera ohitu gabe harrapatu nau. Bakoiti zalea nai-zelako izango da agian, edo kapikua imperfektu honek gazte baina zahar sentia-razten naudelako. Gogotsu bezain beldurti. Ezjakinta-sun zulo eta jakin-min za-ku, aldi berean, bisurte be-rriak sekula bizi izango dudan aldaketarik mingots baina ederrena, erraietako-ena ekarriko didalako, ziur aski. Talaia berri bat, mun-duari begiratzeko.

Begira diezaiodan, bada, azken hoge urteotan egu-nero gertatu baina inoiz gutxitan aldatu den mundu honi. Balia dezadan koa-derno hau, zuri eta zure belaunaldia osatuko duzue-noi utzi dizueguna orri zurian apuntatzeko. Finean, garaia ikaragarri aldatu direla eta hori guri esker izan dela sinetsarazi diguten arren, berresteko, gurpil-zoro berean bueltaka jarraitzen dugula. Lehen eta orain, nor bere bira errepikakorretan zorabiatzen dela egunez egun. Zilbor hestetik askatzen gaituzte bizitze-ko, eta zilbor bakarraren bueltan eraikitzen dugu bizi-tza; hara hor, geurekoikeriaren alegoria.

Eta, bueltaka eta bueltaka, ahaztu egiten zaigu, behin batez, duela hoge urte, behi eroen gaitzak de-nok erotu gintuenekoa. Gran Hermano *reality*-ak Es-

painiako telebistak lehenengoz hartu zituenekoa, edo Lance Amstrongek gerora kendu zizkioten Frantziako Tour guztietan bigarrena irabazi zuenekoa. Oraindik ere literatur sariketetan emakumeak ikustea ezohiko samarra zaigun arren, 2000. urte hartan Lourdes Oñederrak Euskadi Saria jaso zuen, “Eta emakumeak sugeari esan zion” lanagatik. Jose Maria Setienek go-tzain karguari uko egin behar izan zion, eta Txernoby-len azken erreaktore nuklearra itzali zuten, behingoz; orain telesail laudorioztatuek gogorarazi behar izan digute gertatutakoa.

Milurteko berriko hasieran, artean, “Euskaldunon Egunkaria” irakurtzeko moduan ginen eta, azal zen-baitek zioten, perituek datu argigarriak eskaini zituz-tela “Lasa eta Zabala kasuan”; argitu zuten iluna, bai.

2020tik aurrera ere jaioko dira egun berriak, eta bihar ere esnatuko gara, asteak hasteko eta kontatzeko. Akaso bizkarrean sentituko dugu arduraren zama, lur bortxatu honetara sortu nahi izan zaitugulako

Martxoaren 8an, berriz, emakumeen alor guztietako esku hartzea izan zen aldarrikapen feminista nagusia. Ordurako, aurreikuspen ofiziala zen EAEko biztanleria gutxitzea eta zahartzea. Baina NASAk lasaitzeko nahi-koa motibo eskaini zion gizateriari, aldi hark hartu zuen kutsu futuristarekin sintonian: ur zantzuak aur-kitu zituzten Marten, bertan bizitzeko aukera.

Tira, 2020tik aurrera ere jaioko dira egun berriak, eta bihar ere esnatuko gara, asteak hasteko eta kontatzeko. Akaso bizkarrean sentituko dugu arduraren zama, lur bortxatu honetara sortu nahi izan zaitugulako; mun-du malapartatu honetara. Baina bizitza efemeride han-diak baino zerbait gehiago da, eta gaitz erdi. •